


Euskal AEko Merkataritza-sektoreko salmentak % 5,3 gehitu dira 2022ko lehen hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean, Merkataritza % 1,9 igo da

Merkataritzaren sektorean (hots, *Handizkako merkataritza*, *Txikizkako merkataritza* eta *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa*) % 5,3 igo dira salmentak urte artean, prezio konstanteetan eta behin kenduta egutegi-eraginak, 2022ko lehenbiziko hiruhilekoan, Eustatek landuriko datuen arabera.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta urtaroen eragina kenduta, salmentak % 1,9 igo dira 2022ko lehen hiruhilekoan.

Merkatariatzako indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Merkataritzaren barruan, salmenta errealean urte arteko bilakaera positiboa izan da *Handizkako merkataritzan* (% 7,8) eta *Txikizkako merkataritzan* (% 4,9); *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan*, aldiz, bilakaera negatiboa izan da, % 7,3koa.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenten suspertzea % 1,4koa izan da *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan*, % 1,2koa *Txikizkako merkataritzan* eta % 1,0koa *Handizkako merkataritzan*.

Euskal AEko zerbitzuen kointura-indizea. Merkataritza. Behin-behineko datuak. 2022/I

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA	5,3	1,9	5,3
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	-7,3	1,4	-7,3
Handizkako merkataritza	7,8	1,0	7,8
Txikizkako merkataritza	4,9	1,2	4,9
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	3,5	1,9	3,5
Bizkaia	5,8	2,0	5,8
Gipuzkoa	5,5	1,7	5,5
EMPLEGUA	2,7	0,4	2,7

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2022ko Maiatzaren 16a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen kointura indizea

Lurraldeka, 2022ko lehenbiziko hiruhilekoan, Bizkaian % 5,8 igo dira salmentak *Merkataritzaren* sektorean urte arteko terminoetan, Gipuzkoan % 5,5 eta Araban % 3,5.

2021eko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta ere, bilakaera positiboa izan da. Bizkaian % 2,0 igo dira salmentak hiruhileko artean, Araban % 1,9 eta Gipuzkoan, azkenik, % 1,7.

Euskal AEko *Merkataritzako* langile enplegatuen indizea % 2,7 igo da 2022ko lehen hiruhilekoan 2021eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta. 2021eko laugarren hiruhilekoaren aldean, igoera % 0,4koa izan da.

INFORMAZIO OHARRA

Indize ekonomiko kointural honetan eta beste indize ekonomiko kointural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedientea (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jasotzen duen enplegatuaren definizioari jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie zirkunstantziak gorabehera eginiko ahaleginagatik lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, lehen hiruhilekoko indizea % **96,31ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62